

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktuaren helburu izango diren bezeroak mandarinak gustuko dituzten pertsonentzako izango dira. Lehendabizi Espainia mailan salduko ditugu. Arrakastaren arabera gure salmenta eremua handitzen joango da. Gure helburua hilabete batzuen buruan Europa mailan saltzen hastea da. Gure merkatua Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Italiara zabaltzea gustatuko litzaiguke.

Gure tresna erabilerraza denez, 9 urte baino gehiago duten pertsonak erabiltzeko prest egongo da. Adina eta gustuen arabera tamaina eta materiala aldatzeko aukera izango dute. Pertsonalizatzeko aukera hau JATLiren web orrian eskainiko dugu. Bertan zure tresnari aldaketa desberdinak egin ahalko dizkiozu: kolorea aldatu, izena jarri, tamaina aukeratu, materiala aldatu eta gometsak jarri.



<u>PERTSONALIZAZIO MOTA</u>	<u>ZEHAZTASUNAK</u>	<u>PREZIOA</u>
KOLOREA	-Kolore arruntak -Pastel koloreak -Kolore metalikoak	+1€ +2€ +3€
IZENA	Izena, inizialak, datak etab. grabatzeko aukera izango duzu.	+3€
MATERIALA	Kortxo edo zura.	+4€
GOMETSA	Jatliren logoa eta horretaz gain, nahi duzun irudia jartzeko aukera izango duzu.	-Jatliren logoa 1€ (Gomets bakoitzeko) -Beste edozein irudi 3€ (Irudi bakoitzeko)
TAMAINA	<ul style="list-style-type: none">• Umeentzat• Helduentzat	+1,5€ +0,5€